

Txomin Nagore eta Imanol Etxeberria, bazterrean

Ramon Basaldua / Bilbo

ATZOKOA ez zen egun polita izan San Mamesen zuri-gorritz jantzita agertu ziren bi jokalarirentzat. Txomin Nagore eta Imanol Etxeberriak kontratua dute Athleticekin, baina oso etorkizun iluna dute talde zuri-gorrian. Atzoko aurkezpenean ere garbi geratu zen zer-nolako egoeran dauden bi jokalariek. Izan ere, argazkirako plan-tilako gainerako kideekin batera jarri ondoren Nagore eta Imanol Etxeberria ordezkoen aulkian eseri ziren, ziurrenik entrena-tzaileak aginduta. Ondoren, Txetxu Rojok hamaika gizon ez osaturiko bi talde jarri zituen aurrez aurre partidutxo batean eta Nagore eta Imanol Etxeberria ez ziren egon hogeita bien artean. Bigarren zatira arte ez zuten jokatzeko aukerarik izan.

Atzokoa ikusita, ez dago zalantzarik 2000-2001 denboraldia oso gogorra izango dela bi jokalarientzat egun Athleticekin duten harremana hobetzen ez badute.

Del Horno eta Exposito ere aulkian egon ziren.

helburu aberatsak ditu has-tear dagoen denboraldiari begira. «Klubean guztiok uste dugu aurtengoa denboraldi ona izan daitekeela Athleti-centzat. Garbi daukat Euro-pako postuetarako borrokan sartzeaz gain handik gora ere egon gaitezkeela», adierazi zuen presidenteak.

Luis Fernandez ere gogoan izan zuen Arratek. «Etap berri baten aurrean gaude eta gogoratu egin behar dugu Luis Fernandezek gurean egindako lana. Ea Txetxu Rojok, gutxienez, aurrekoak beste denbora egiten duen gure artean».

Rojoren gizonak entrena-mendu saio arina egin eta partidutxoa jokatu zuten San Mamesen bertan bildu-tako zaleen pozerako. Zuri-gorriak goizez eta arratsalde zentratuta dira gaur eta bihar Lezaman, eta ostiralean Ingalaterrarentzat abiatuko dira. Hortik aurrera ikusiko dugu zer emateko gauza di-ren.

2000-2001eko Athletic



Kluba: Athletic Club de Bilbao
Noiz sortua: 1898
Presidente: Jose Mari Arrate
Presidenteordea: Txomin Guzman
Gerentea: Fernando Otxoa
Entrenatzailea: Txetxu Rojo
Bigarren entrenatzailea: Ernesto Valverde

Laguntzailea: Jose Anjel Iribar
Prestatzaile fisikoa: Manolo Delgado
Medikuak: Sabino Padilla eta Paco Angulo
Fisioterapeuta: Jesus Zelaia
Iazko postua: 11.a
Palmaresa: Espainiako zortzi Liga, 23 Kopa eta Superkopa bat.

Bittor Alkiza Nongoa: Donostia Postua: Erdilaria Denboraldiak: Zazpigarrena (1994tik). Aurreikuspena: Ondo osatu barik ekin dio denboraldiari. Errekuperatu ostean titular izan beharko luke.	Rafa Alkorta Nongoa: Bilbo. Postua: Atzelaria Denboraldiak: Bederatzi (1987tik-93ra eta 97tik aurre-ra) Aurreikuspena: Rojok konfiantza itzela du berarengan. Lesioak izango ditu aurkari nagusi.	Dani Aranzubia Nongoa: Logroño (Errioxa) Postua: Atezaina Denboraldiak: Lehenengoa Aurreikuspena: Badaki Lafuenteren ordezkoa izango dela eta ez duela askorik jokatzetik izango. Esperientzia hartzea du helburu.	Carlos Garcia Nongoa: Durango Postua: Atzelaria Denboraldiak: Zortzigarrena. Aurreikuspena: Atzealdeko erdialdea osatuko du Alkortarekin batera. Durangarra gizon garrantzitsua da Rojoren taldean.	Aitor Larrazabal Nongoa: Loiu Postua: Atzelaria Denboraldiak: Hamaikagarrena (1990tik) Aurreikuspena: Rojok atzealdeko ezker hegalean zelairatuko du. Sendotasuna emango dio atzealdeari.
Santiago Ezquerro Nongoa: Calahorra (Errioxa) Postua: Aurrelaria Denboraldiak: Hirugarrena Aurreikuspena: Rojoren gustuko jokalaria da. Ustez, ezker aldetik jokatu beharko badu ere, ikusi egin beharko da non zelairatzen duen entrenatzaileak.	Felipe Gurendez Nongoa: Gasteiz Postua: Erdilaria Denboraldiak: Bosgarrena (1996tik). Aurreikuspena: Aurtin ez da zoratuta ibiliko Rojok erdialderako nahi du eta. Iaz baino gutxiago jokatuko du.	Julen Guerrero Nongoa: Bilbo Postua: Erdilaria Denboraldiak: Bosgarrena (1996tik) Aurreikuspena: Sekulako askatasuna hartu du Luis Fernandez joan ostean. Bere onera itzuli behar du.	Imanol Etxeberria Nongoa: Bergara Postua: Atezaina Denboraldiak: Laugarrena (1997tik). Aurreikuspena: Denboraldi gogorra atezainarentzat. Hiru urtez titular izan ondoren baztertuta egongo da.	Andoni Imaz Nongoa: Billabona Postua: Erdilaria Denboraldiak: Hirugarrena (1998tik). Aurreikuspena: Ilusio handiz dago belaunean izan zuen lesio larria gainditu ondoren. Aurretik ez dago titullarren artean.
Javi Gonzalez Nongoa: Zorroza Postua: Erdilaria Denboraldiak: Laugarrena (1997tik) Aurreikuspena: Titular izateko aukerak ditu. Gizon interesgarria izan daiteke irregularitasuna alde batera uzten badu.	Joseba Etxeberria Nongoa: Elgoibar Postua: Aurrelaria Denboraldiak: Seigarrena (1995tik) Aurreikuspena: Stepanovic eta Luis Fernandez baino ez ditu ezagutu Athleticen. Ea zein maila ematen duen Rojorekin.	David Karanka Nongoa: Gasteiz. Postua: Aurrelaria Denboraldiak: Bigarrena (2000tik) Aurreikuspena: Oraindino ez daki ziur non jokatuko duen. Lehen plantilan sartzea lorpen handia litzateke berarentzat.	Mari Lacruz Nongoa: Iruñea Postua: Atzelaria Denboraldiak: Laugarrena (1997tik) Aurreikuspena: Sydneyra joatea kaltegarria izan daiteke nafarraren-tzat. Larraizarrek aurrea hartu dio ti-tularatasunerako lasterketan.	Iñaki Lafuente Nongoa: Barakaldo Postua: Atezaina Denboraldiak: Bigarrena (1999tik) Aurreikuspena: Rojoren konfiantza osoa du eta bera izango da Athleticeko atezain titularra denboraldi honetan.
Iñigo Larraizar Nongoa: Iruñea Postua: Atzelaria Denboraldiak: Zortzigarrena (1993tik) Aurreikuspena: Titular bezala ekingo dio denboraldiari. Ikusi egin beharko da Lacruz itzulita postuari eusten dion.	Mikel Lasa Nongoa: Legorreta Postua: Atzelaria Denboraldiak: Laugarrena (1997tik) Aurreikuspena: Arnasa hartu du Luis Fernandez joan ostean. Rojorekin ez da hasierako hamaikakoan izango.	Carlos Merino Nongoa: Bilbo Postua: Erdilaria Denboraldiak: Lehenengoa Aurreikuspena: Luis Fernandezek fitxatu zuen eta ikusteke dago zer erabakitzen duen Rojok. Jokalari zuhurra da golak sartzen dakiena.	Txomin Nagore Nongoa: Irurtzun Postua: Erdilaria Denboraldiak: Laugarrena 1997tik) Aurreikuspena: Etorkizun beltza du Athleticen. Kontratua berritzen ez badu baztertuta egongo da urte guztian.	Pablo Orbaiz Nongoa:Iruñea Postua: Erdilaria. Denboraldiak: Lehenengoa Aurreikuspena: Zarata barik iritsi bada ere dohain guztiak ditu Rojoren hamaikakoan sartu eta denboraldi bikaina egiteko. Etorkizun handiko mutila.
Oscar Vales Nongoa: Basauri Postua: Atzelaria Denboraldiak: Seigarrena (1993tik-1997ra eta 1999tik) Aurreikuspena: Zaila izango du hamaikakoan sartzea. Hala ere, aurreko urtean baino gehiago jokatuko du.	Roberto Rios Nongoa: Portugalete Postua: Atzelaria Denboraldiak: Laugarrena (1997tik) Aurreikuspena: Azken urteotan izandako bolada txarra gainditzeko saiatuko da. Jokalari garrantzitsua izan daiteke.	 JOSU ETXEBARRIOSTE		Tiko Nongoa: Iruñea Postua: Erdilaria Denboraldiak: Bigarrena. (1999tik). Aurreikuspena: Jokalari ona dela erakutsi zuen iaz. Lehia gogorra izango du hamaikakoan sartzeko.
Josu Urrutia Nongoa: Bilbo Postua: Erdilaria Denboraldiak: Hamairugarrena (1988tik) Aurreikuspena: Pisu handiko gizona izango da aurtin ere. Aurkari gogorak izango ditu erdialdean.	Ismael Urzaiz Nongoa: Tuteria Postua: Aurrelaria Denboraldiak: Bosgarrena (1996tik) Aurreikuspena: Athleticen erasoko jokoaren erreferentzia izan behar du. Dohain guztiak ditu betebeharrak.			Fran Yeste Nongoa: Bilbo Postua: Erdilaria Denboraldiak: Bigarrena (1999tik) Aurreikuspena: Aukera ezin hobea du taldean sartzeko. Ezker bikaina izatea ez da nahikoa titullartasuna lortzeko.

Rajo, berriro San Mamesen. Txetxu Rojo entrenatzaile berria izan zen protagonista nagusia atzo, Athleticen aurkezpenean.